

BANDOA

KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIOAREKIN BAT.

Bermeoko Udaleko bozeramaileek honako deklarazio hau onartu dute:

- 1.- Bermeoko Udalak bere kezka adierazi eta **baztertu** egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian eragin den esku hartzeagatik, eta **Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik**, zeinaren bidez erregistroak eta atxiloketak egin baitiren Generalitateko instalazioetan eta beren arduradun legitimoiei.
- 2.- Bermeoko Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio **bertan behera utz dezala oinarrizko eta funtsezko askatasunen errepresio-estrategia**, demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkakoa.
- 3.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren **Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu**. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.
- 4.- Bermeoko Udalak **berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa**, eta elkartasuna adierazten die Kataluniako herriari eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa -Estatuko Gobernuak gidatutakoa- pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.
- 5.- Bermeoko Udalak **dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbidetzera eta bere erabakiak errespetatzera**. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Estatuko Gobernuako presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere honen berri ematea.

Bermeon, 2017ko irailaren 22an

ALKATEA

Idurre Bizeguren Gabantxo

EH BILDU
Benito Ibarrolaza Munitiz

GUZAN
Xabi Ortuzar Butroin

NIRE AURREAN
IDAZKARI AKZIDENTALA
Karmele Muñoz Arrigain

EAJ/PNV

Aritz Abaroa Cantuariense

IZARTU

Sergio Ugalde Zabala